



KIROL MATERIALAREN ZOZKETAREN LEGE OINARRIAK ESKOLA KIROLEKO KANPAINA



500 euroren kirol materialaren zozketa

ARABAKO FORU ALDUNDIAK zozketa egingo du Arabako ikastegi edo kirol entitate bat kirol materialez saritzeko. Eskola kiroleko kanpaina zabaltzeko sortutako sare sozialetan (**TikTok** eta **Instagram**) partekatutako talde dantza batean parte hartu ondoren aukeratuko da sariduna.

Kanpaina honen xedea da ausazko zozketa bat egitea **@arabakirola**-ren **TikTok** edo **Instagram**-eko kontuan **#buruaerabilizjokatu** traol-hitzarekin talde dantza bat partekatzen duten Arabako ikastegi eta kirol entitate guztien artean.

Sustapena ondoko oinarri hauen arabera egingo da:

1.- Ekintzaren denbora- eta lurralde-eremua

2021eko apirilaren 30ean, abian jarriko da dinamika sare sozialen bidez, eta **2021eko maiatzaren 21eko 23:59 arte parte hartu ahal izango da**. 2021eko MAIATZAREN 24tik aurrera, ezagutaraziko da Arabako zein ikastegi edo kirol entitate den sariduna.

2. Parte hartzeko legitimazioa

Lehiaketa honetan sartuko dira Arabako ikastegi eta kirol entitate guztiak, kanpaina honetan parte hartzen badute dantza hori eginez eta sare sozialetan **#buruaerabilizjokatu** traol-hitzarekin partekatuz.

Ezin dezakete parte hartu sustapen honetan:

- AFArekin loturiko langileak edo zuzendaritza-kideak
- Kanpaina hau prestatzen edozein eratan parte hartu duen edonor, ez eta haren ezkontidea eta senideak ere, odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

3. Lehiaketaren mekanika

2021eko apirilaren 30ean abian jarriko da dinamika hau, **@arabakirola**-ren sare sozialen bidez.

ZOZKETA!, Parte har ezazu zeure ikastegi edo kirol entitateko kirolariak burua erabiliz jokatzen ageri diren bideo bat **TikTok** edo **Instagram**-era igoz (**#buruaerabilizjokatu**). 500 euroko saria irabaz dezakezu kirol materialean.

2021eko maiatzaren 24an egingo dugu zozketa eta ezagutaraziko ditugu saridunak.





ZOZKETAREN LEGE OINARRIAK

Arabako edozein ikastegi edo kirol entitate, lehiaketan era egokian parte hartzen badu, sariaren ausazko zozketan sartuko da.

4. Sariduna

AFAk, zozketa egin ondoren, harremanetan jarriko da entitate saridunarekin, parte hartzeko erabili duen sare sozialaren bidez.

Saria onartzean, entitate saridunak onartuko du bere datuak @arabakirola-ren sare sozialetan argitara ematea.

5. Saria

Saria 500 euroren kirol materiala erosteko balio duen txartel bat izango da.

6. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar arau hauek bere osoan onartzea. Arauok web orri honetan kontsultatu daitezke: <https://web.araba.eus/eu/kirola>

Enpresa antolatzaileak eskubidea gordetzen du lehiaketa honen funtzionamendu ona eta arauzko bilakaera normala nahasi, eragotzi edo faltsutzen duen edozein entitate kanporatzeko, baita lehiaketatik sortutako edozein auzi ebazteko eskubidea ere.

7. Irudi eskubideak eta datuen babesa

Entitateek bideoetan agertzen diren adingabeen gurasoei, tutoreei edo legezko ordezkariari baimen espresua eskatu beharko diete haien irudiak gizarte sareetan zabaldu ahal izateko.

Arabako Foru Aldundiak ez ditu gordeko ez tratatuko irudi horiek, ez eta bideoetan agertzen diren pertsonen inolako beste datu pertsonalik ere.

